Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Nogues Martikorena
Lasarte-Oria, Gipuzkoa (1915)

Aurkibidea

Biografia

Lasarteko "Traperia" esaten zitzaion etxean jaioa. Aitaren aldeko aitona Kataluniatik etorri zen nonbait, eta trapero-lanetan jardun zuen Lasarten. Aita lasartearra; ama Oriotik etorria. Zortzi senide izan ziren eta lehengusu bat ere beraiekin batera hazi zen. Kontzejuko eskolan ibili zen umetan. Umetatik denek ahalegina egin behar izaten zuten, etxera diru apur bat eramateko. Amak denda zuen.

Zintak

LAS-056

- **Proiektua**: Lasarte-Oriako historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizmendi, Mila
- **Data**: 2002-12-21
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

LAS-057

- **Proiektua**: Lasarte-Oriako historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizmendi, Mila
- **Data**: 2002-12-21
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Audio Analog

LAS-058

- **Proiektua**: Lasarte-Oriako historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizmendi, Mila
- **Data**: 2002-12-21
- **Iraupena**: 52 min
- **Euskarria**: Audio Analog

Pasarteak

1. Mutikotan xaboi fabrikarako kokoak lapurtzen zituzten

- **Erref**: LAS-056/001
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Xaboi-fabrika. Kokoa ekartzen zuten bagoietan. Errotara eramaten zen olioa ateratzeko. Beraiek kokoak lapurtzen zituzten, jateko.

2. Garai batean familia handiak eta diru-sarrera txikiak

- **Erref**: LAS-056/004
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:06:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Garai batean familia handiak eta diru-sarrera txikiak. Aitak hiru pezeta irabazten zituen; Donostiaraino joan behar lanera eta, gainera, apopilo egon behar. "Txanpona zegon lekun, han ibili behar izaten gendun, etxera zerbait ekartzeko". Lasarteri bizia ematen zioten ekintzak: hipodromoa, golfa, erromeriak... Beraiek golf-ean aberatsei poltsa eramateagatik hiru pezeta irabazten zituzten udaran. Diru harekin sei librako ogia etxera. Hamaika lagun bizi ziren etxean, lehengusua ere han hazi zen eta.

3. Amaren dendak ez zuen askorik ematen

- **Erref**: LAS-056/005
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:06:51. **Bukatu**: 00:08:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxean asko lagundu behar izaten zuten umetatik. Denda zuen amak, baina ez zuen askorik ematen, inork ez zuelako izaten dirurik. Dendan hurrengoan ordaintzeko uzten ziren gauzak askotan. Funtzio anitzekoa zen. Ama bizia zen.

4. Denek egiten zuten ahalegina etxera zerbait ekartzeko

- **Erref**: LAS-056/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:09:26. **Bukatu**: 00:10:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Jesukristok apostoluei banatu zien moduan, beraien etxean ere zegoen ogia banatu egiten zen. Denek egiten zuten ahalegina etxera zerbait ekartzeko. Lasarten zortea zuten, Donostiako espektakuluak hara ere iristen zirelako.

5. Kontzejuko maisua, gogorra

- **Erref**: LAS-056/009
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Kontzejuko eskolan ibili zen, herrian bertan. Maisua, gogorra; makila erabiltzen zuen ordena jartzeko. Haren lehenengo lana egunkaria irakurtzea izaten zen.

6. Mercerotarrekin harremana

- **Erref**: LAS-056/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:13:17. **Bukatu**: 00:15:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Eskolako laguna izan zuen Juanito Mercero gazterik hil zen. Saturnino Mercerok abarketentzako telak egiten zituen lantegia zuen, Gorostegirekin batera. Juanitoren gurasoek denda zuten (gaur egun Gure Etxea taberna dagoen lekuan) eta beraien denda parean zegoen. Harreman handia zuten bi familiek.

7. Aitona Artzain Onaren katedralean lanean

- **Erref**: LAS-056/013
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:15:18. **Bukatu**: 00:16:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama oriotarra zen. Aitonak Donostiako Artzain Onaren katedrala egiten lan egiten zuen eta bere fardelarekin astea pasatzera joaten zen. Obrako enkargatuak alaba zeukala jakin zuen eta bere umeak zaintzera joatea proposatu zion. Halaxe joan zen ama. Gero handik Lasartera.

8. Lasarteko `Indianesa´

- **Erref**: LAS-056/015
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:16:49. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Lasarteko `Indianesa´. Kanpotik etorria izan behar zen, baina inork ez zekien zehazki nondik. Ostatua jarri zuen Lasarten, Tximistaenean; kanpoko jendea edukitzen zuen apopilo, zaldi zaleak eta.

9. `Indianesa´ren etxea eta ingurua

- **Erref**: LAS-056/017
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:19:08. **Bukatu**: 00:20:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
`Indianesa´ Tximistaenean bizi zen, baina gero Ormazabal dendariaren ondoan hartu zuen etxea. Etxea non zegoen. Olatxoenea. Uzkudunen errota ere inguru horretan zegoen.

10. Mundu gerraren eragina Lasarten; aldaketak Frantziatik

- **Erref**: LAS-056/018
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:20:09. **Bukatu**: 00:21:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Politika » Gerra aurrea » I. Mundu Gerra (1914-1918)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Mundu gerren eragina Lasarten. Frantziatik etortzen ziren aldaketak, hangoak hona etortzen zirelako gerra sasoian. Garai hartan ireki zen hipodromoa. Jende inportantea etortzen zen eta bertako etxeetan hartzen zuten ostatu. Beraien etxean bizkonde bat egoten zen.

11. Tximistaeneko hilketa

- **Erref**: LAS-056/021
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:24:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Tximistaenea bi solairuko etxea zen eta gero beste puska bat egin zioten. `Indianesa´ etorri zenerako etxea egina zegoen eta ostatua jarri zuen bertan. Emakumea falta zela eta ez zioten garrantzirik eman hasieran, baina bere zakurrek hilda aurkitu zuten. Itxuraz, bere maitaleak hil eta sotoan ezkutatu zuen.

12. Muñagorri etxea; Muñagorritarren sagardoa

- **Erref**: LAS-056/031
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:40:19. **Bukatu**: 00:42:28
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Muñagorri etxeak bi bizitza zeuzkan. Ondoko etxeak: Asteasu eta Tximistarreta. Muñagorritarrek sagardoa egiten zuten. Usurbilen baserria zuten eta hango maizterra joaten zen Lasartera sagardoa egitera.

13. Etxea erosteko laguntza eske

- **Erref**: LAS-056/034
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:49:46. **Bukatu**: 00:53:04

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Muñagorri etxea erosteko ahalegin guztiak egin zituen. 30.000 pezeta bakarrik zituen eta etxea ia 300.000 pezeta ordaindu behar. Laguntza eske ibili zen. Azkenean dendarako gauzak ekartzen zizkien batek utzi zion dirua, berarekin konfiantza zuen eta. Dirua besterik gabe utzi nahi zion, baina, Juanen eskariz, idatzizko tratua egin zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-10

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com